

LARRINGANEKO ERROTA

1963. urteko abuztuko arratsalde bero batean, ezingo nuke zehazki eguna esan, Mikel eta biok Larringaneko errotarantz gindoazen etxerako ur freskoa hartzera. Bidean, auzoko Karmele andrearekin aurkitu ginen:

-Umiok, zer eitten dozue hemendik? Illun dau eta etxien egon biherko ziñien...

-Lasai, Karmele! Larringaneko errotara goiez ure hartzen, besterik ez.

-Errotara? Iñoz ez dozue kondairie entzun, ala? Esaten da abuztuko gabarik luzienien, Euskal Herriko izaki mitologiko guztidxe errotan batzen diela, gaba hori ospatzeko. Baña kontuz! Iñok ikusten badauz ez deusie bertatik bizirik urtetan itxiko!

-Baña, zer diñozu? Horreek umien kontuek die. Benga, Mikel, guezan berandu egin baino lehenau!

Noski, hasieran ez genuen ezer sinetsi, baina elkarrizketa hark jakin-min apur bat sortarazi zigun, eta horregatik arinago abiatu ginen bertarantz.

Arnasestuka eta izerditan heldu ginen errotara, ez zen ez, aldapa makala! Baina, bat-batean ahotsak entzuten hasi ginen, era askotakoak; denen gainetik ahots sakon eta sarkor bat entzuten zen; beste ahots mehe eta lirain bat abesten zegoela zirudien; eta atzetik, izaki txiki batena izan zitekeen ahots zoli bat entzuten zen. Noski, jakin-mina genuen eta ateko behatxulotik begira gelditu ginen. Ikusi genuena sinestezina zen.

Mota guztietako animalia, gizkai eta nahasteak zeuden bertan: lamiak, iratxoak, akerbeltzak, basajaunak, galtxagorriak, sorginak, Tartalo eta baita Olentzero ere.

Ezustean, Mikelek estropezu egin zuen uraren baldearekin, berak ni bultzatu eta ziplo jausi ginen biok errota barrura. Lehen zegoen alaitasun, musika eta giro ona bat-batean desagertu zen eta denek gugan jarri zituzten begiak. Basajaun izan zen lehenengoa hitz egiten, eta hauxe esan zigun:

-Zer ikusi duzue? Zer entzun duzue? Nortzuk zarete? Zer nahi duzue?

Noski, gu kasualitate hutsez geunden bertan, baina ez zirudien barrukoak uste berekoak zirenik.

-Gu-gu-guk ez gendun molestatu gure. Musika entzun ta kuriositate hutsez begiratu dogu. Ez gaituzue jango, ezta?

Han bildutakoak algaraka hasi ziren, barregarria zen zerbait egin bagenu bezala. Harrituta geunden.

-Zergaitik jango zindueguzan, ba? Esan, mesedez, ez dozuezela kondaira iñozo horreek siñisten.

-Orduen, ez gaituzue jango?

-Jakina ezetz!!

Festan parte hartzera gonbidatu gintuzten eta azkenean izaki haiengandik asko ikasi genuen. Hain ondo pasatu genuen, non bat-batean eskaintza zoro bat egin zioten Mikeli:

-Mikel, gure moduko izaki bat izetie gustatuko jatzun? Hau da, izaki mitologiko bat izen gura dozu? –Mutila shock egoeran gelditu zen.

Bera, Mikel, izaki mitologiko bat? Eta ni zer?

Korrika irten nintzen bertatik eta konturatu gabe Anbotoko koba batean amaitu nuen. Nire negarrekin kobazuloa ere handitu egin nuen eta zin egin nion neure buruari inor bertatik agertzen bazen bizkarra emango niola, Mikel eta enparauek niri egin zidaten bezala; eta aurpegira begiratzen bazidan harri bihurtuko nuela. Hain handia zen mitologiko bihurtzeko nuen gogoia, ze Anbotoko Mari bihurtu nintzen.

Eta halan bazan edo ez bazan, ausartzen dena ager dadila Anbotoko kobazulo hartan.